Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Zaratamo

Aurkibidea

Udalerria: Zaratamo

Sarrera



Bizkaiko erdialdean dagoen udalerri hau Nerbioi ibarrean kokatuta dago. Udalerriak bi zati oso ezberdin ditu: beheko aldeak, Arrigorriaga ondoan dagoenak, Nerbioi ibaiaren ertzean, industria du nagusi; goiko aldekoa, berriz, landa eremukoa da. Ipar-mendebaldean Basauri, ipar eta ekialdean Galdakao, mendebaldean Arrigorriaga eta hegoaldean Zeberio ditu mugakide.

- **Biztanleak**: 1.786
- **Euskaldunak**: %38,5

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **3**
- Zintak: **3**
- Pasarteak: **19**
- Transkribatutakoak: **3**
- Audioak: **19**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Basauriko euskararen azterketa linguistikoa
- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak



Manolo Egiluz Agirre (1937-2013)

1937. urteko lehen egunean jaio zen Zaratamoko Altamira auzoan. Gurasoak ere zaratamarrak zituen. Zaratamon bizi izan arren, beti izan zuten Arrigorriagara joateko joera bertako herrigunea hurbilago baitzuten. Umetan herriko eskolara joan zen, baina eskola partikularrera Arrigorriagara. Gutiola auzoko Arriandiko harrobian lan egin ostean, 28 urtegaz lantegian hasi zen beharrean eta bertan aritu zen jubilatu arte.

Bernarda Uriarte Jaka (1902)

Zaratamoko Arkotxa auzoko baserrian jaio zen 1902 inguruan. Gero, Etxerre auzora
joan zen bizi izatera. Jaiotako baserriaren inguruko lur-sailak Zaratamokoak dira, baina
etxe hori distantzia berdintsura dago Zaratamo, Galdako eta Basauritik. Basauriko euskararen azterketa linguistikoa lanean parte hartu zuenekoa da grabazio hau.



Maria Ester Zorriketa Elezkano (1934)

Basaurin jaio zen, baina bizimodu guztia eman du Zaratamon. Gurasoak ere Zaratamokoak zituen. Bi neba-arrebatatik zaharrena da. Gaztetan dendatxo bat zabaldu zuen Zaratamoko plaza ondoan eta futbol-taldeko lehendakaria ere izan zen. Gaztetan hara eta hona joatea gustatzen zitzaion. Hortaz, gaztetako ibilerez eta Zaratamoko herriaz egin benuen berba beragaz egon ginenean, besteak beste.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Euskara

1.1. Etxerren denak ziren euskaldunak

- **Hizlaria(k)**: Uriarte Jaka, Bernarda
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: ZRT-002/008
- **Iraupena**: 0:00:31. **Hasi**: 00:16:03. **Bukatu**: 00:16:34
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Etxerren euskaldunak ziren auzokoak.

Transkripzioa
- Ta zuk euskeraz egin Etxerren nogaz eiten zendun? Oin ya gitxi diñozu ez?
- Baiña harrapau gizin euskaldunek.
- Bai?
- Bai ene [...] ondiño han bizi de, han bizi zinak neure koinati izin zen gero, Antoni. Baia han bizi zen Manuel, ta Vicenta, ta eurek euki euazan seme parte bat ta alabak eta, ta gehixenak euskera itxen... euskera.

2. Familia eta harremanak

2.1. Auzokoen berri

- **Hizlaria(k)**: Uriarte Jaka, Bernarda
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: ZRT-002/010
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:17:11. **Bukatu**: 00:18:11
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Auzoak zehazten ari dira. Praderak dena erosi zuen, gero saltzeko.

Transkripzioa
- Uriarte, Uriarten bizi ziren ezta?
- Uriarte bai, baie Uriartek oin Merriñen bizi direz.
- Hori ez da Etxerre? Hori zer da? Merriñe, Zabalaundi, Etxerre...
- Etxerre da hori! Etxerre. Ta horrik nire lehengusuk diñozuz, han bizi diz oin. Ba Basauriko artien.
- Bai, bai.
- Lehen Zaratamoko partiei "Garai" esaten otsien, baie hak be bota euren... saldu in zin etxie ta! Praderak diru apur bet kosteko... harek be, dana erosi lehenango ta gero dana saldu in euazan.
- Bai.
- Praderak... praderak danak erosi euren orduen.
- Bai, praderak apurke apurke dana erosi, baie dana saldu atzera be. Halan dena desbanezidute.
- Bai.

3. Baserria

3.1. Behar asko eginda, pobre

- **Hizlaria(k)**: Uriarte Jaka, Bernarda
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: ZRT-002/014
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:23:30. **Bukatu**: 00:24:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Behar asko eginda, baina pobre bizi izan dira, goserik gabe. Kafesnea hartzen zuten, beste batzuek horixe ere ez.

Transkripzioa
- Gu pobre bizi izin gara, biher asko inddakuek gure bizixen.
- Zer baiá, beste batzuk baiño hobeto ezta? Ze bueno... ganadue eukite ta...
- Bai, pobre baie goserik ez, hori ez.
- Hori de.
- Goserik ez dogu euki. Goizien kafe ta esni edo emuten edo... bakoitxek guroguna edaten eben, ze beste etxek bazuten iguan baserrixen han e gorago Zaratamoko partien han ere esaten eurien batzuk, "kafe ta esnie [...] ekusi be ez!" Guk bai, kafe ta esnie guk bagenun goizin ta erguerdixen ta arrastin igual... Guk bai, kafe ta esni ta hori eukitten gendun. Amak emoten oskun hori, beste batzuk hor ezer bez. Ze ordun jente pobri bizi zen [...].
- Bai.
- Ta baserrixen be bai e, hemen be. Jentie pobre bizi zen. Hor Arizen eduki genduzan lagunek asko, baie geure modun pobre. Pobre.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Etxerreko etxerik zaharrena (ZRT-002/002)

Etxerren, partea tokatu zitzaion, lehenengo pisua. Gurasoak zaratamoztarrak izan ziren. Praderak etxea bota eta terrenoa eman zien gurasoei etxea egiteko. Hiru solairuko etxea. Zein den Etxerreko etxerik zaharrena azaltzen du.

2. Etxerreko lehengo bizilagunak (ZRT-002/003)

Euren baserria ere Marqués de Vargasena izan zen lehenago eta Praderari saldu zion. Eta horrek ere saldu egin zuen.

3. Bernardaren lagunak (ZRT-002/004)

88 urte ditu. Elkarrizketatzailearen amamari eta aititeri buruz ari dira. Lehen denek ezagutzen zuten elkar.

4. Auzokoei buruz (ZRT-002/005)

Auzokoei buruz hitz egiten dute. Berak euskaraz egiten du hobeto baina orain inguruko inork ez daki euskaraz, eta denek erdaraz egiten dute.

5. "Zuzen" batzuek, "artez" beste batzuek (ZRT-002/006)

Berak euskaraz ondo dakiela dio, baina Gipuzkoa aldean eta gauza batzuk beste era batera esaten dituztela dio Bernardak. Telebistan entzun du "zuzen dago", berak "artez" esaten du, baina entzuten duen guztia ulertzen du. Galdakaokoek apur bat ezberdin egiten dute euskaraz, beste ingurukoek bere antzera.

6. Baserrian lan eta lan (ZRT-002/011)

Baserriko bizimodua gustatzen zitzaion. Behiak izaten zituzten eta beti morroiren bat izaten zuten. Lehenengo jaunartzea egiteko dotrina ikasi behar zen, eta orduan joan zen eskolara irakurtzen eta sinatzen ikastera. Irakurtzen badaki eta gutxi idazten du.

7. Etxean geratu beharra behiak gobernatzen (ZRT-002/012)

Amak beharra baino ez zuen egiten, eta gazterik hil zen, nekearen nekeaz. Gaztetan Limpiasera egun batzuk igarotzera joateko aukera izan zuen Bernardak, baina ez zion amak joaten utzi, lanen ardura zuela eta. Bi ahizpa izan zituen, baina berak izaten zuen baserriko lanen ardura. Behiei esker nahi adina esne zuten, baina ezer ikasi barik eta ikusi barik lan eta lan bizi izan ziren.

8. Abuztuan Bilbora gonbidatuta (ZRT-002/013)

Amak Belostikaleko neskatxo bat hazi zuen eta haren familiaren etxera joaten ziren lantzean behin gonbidatuta. Abuztuko jaietan joan zirenean ikusi zituen barrakak. Gurasoak joaten ziren Urkiolara edo San Blasetara Abadiñora, eurak etxea zaintzen utzita. Bi ahizpa joaten ziren Bilbora.

9. Gonbidatu, Galdakaora (ZRT-002/015)

Ingurukoak oso pobreak ziren. Batzuk fabrikan lan egin ondoren bizkortu ziren. Gerra barik ere, ingurune pobrea zen Bizkaia. Galdakao bera ere bai. Santa Kruzetan gonbidatu joaten ziren Galdakaora, eta etxeko moduan jaten zuten: garbantzuak eta oilaskoa, etxean domeketan jaten zuten moduan. Kanpoan ibiltzearren joaten ziren.

10. Pradera familia (ZRT-002/016)

Pradera familia auzoan bizi zen, eta harremana zuten. Haien lorategira eramaten zituzten olgetan. Goserik ez zuten pasatzen, baina bestelako ugaritasunik ere ez zuen ikusten berak. Gero bai, milonario egin zen Pradera. Markinakoa zen jaiotzaz Pradera; lehengusuarekin ezkondu zen. Don Guillermo eta Doña Eusebia ziren, baina orduan ere baten batzuek ez zuten don-doña izendapena onartzen, ez zutelako inolako titulurik. Herriarentzat onak izan ziren.

11. Txarriboda (ZRT-002/017)

Aita nahiko ganadu hiltzaile ona zen. Petra Otegi (Juan Otegiren andrea), Amurriokoa, eramaten zuen amak laguntzera txarriboda egunean. Auzoko

batzuk eta lehengusuak ere joaten ziren afaltzera egun horretan. Euren etxeen beti egoten zen kopa; beste etxe batzuetan ez. Luxurik ez, baina goserik ez.

12. Beti izaten zuten kafea etxean (ZRT-002/018)

Goizean kafesnea edo esnea taloarekin edo morokilarekin jaten zuten. Amak kafe beltza ogi apur batekin. Bazkaltzeko, indabak, porru salda edo patatak saltsa berdean lantzean behin. Geratzen zena txakurrari. Gauean berdin, sardina zaharra ere jaten zuten afaltzeko.

13. Amak panderoa jo eta auzokek dantzan (ZRT-002/020)

Amak panderoa jotzen zuen ondo eta auzokoak (Nikolas eta Petra) joaten ziren etxera afalostean eta amari panderoa jotzeko eskatzen zioten eurek dantzan egiteko. Bernardak ez zuen dantzan ikasi; besteak dantzan ari zirela bera lanean konejuekin edo txerriekin (hiruzpalau izaten zituzten) aritzen zen eta. Urtean txerri pare bat edo hiltzen zuten.

14. San Fauston erromeria (ZRT-002/021)

San Fauston egiten zen erromeria.

15. Erromerietara (ZRT-002/023)

Arrigorriagaren izenari buruz ari dira. Kanpotik etortzen zen gazteria Basaurira domeketan, bandaren erromeriara. Laudioko Santa Luziko erromeriara ere joaten ziren. Oinez edo okinaren furgonetan joaten ziren eta trenean itzultzen ziren.

16. Hi edo zu (ZRT-002/025)

Hitanoa mutilei, bestela zuka.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-11

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com